

2015eko ekaina

Utzi negarrez egoteari

Belaunaldi batez eta beraren arazo funsgabeez 1983. urtean Munich hirian jaiotako Meredith Haaf idazle alemanaren azken lanaren izenburua da. Oso gustura irakurri dut. Ezin ukatu atsegin izan dudala *Belaunaldi galdua* edo *Ni-ni belaunaldia* deritzonaren baitan sortutako pertsona batek bere errua aitortu eta norberaren jokabideari dagokion erantzukizunaz jabetu izana, kontzientziaz eta senez, inolako porrotik edo errukirik erakusteke. Meredith Haafek idazteko modu bizkorra, objektiboa eta pragmatikoa darabil eta, aldi berean, isekaria eta umorez zipriztindua, 80ko hamarkadan jaio zirenen portaeraz eztabaidatzeko.

Idazlearen iritziz, belaunaldi horretako kideak etxe lar babestuetan jaio ziren, gurasoak beldur zirelako beraiek pairatutakoak seme-alabek ere sufritu zituzten. Eta berriro diot, etxeko giro babestuegian hazi ziren. Horren eraginez, gaur eguneko gizarte, lan eta ekonomia testuinguru ilunean, gazte askok nahiago dute gogo barik edo sortasun* betean bizi, asmoz eta ahaleginez jokatu baino, halako batean egoera aldatuko den esperantzaz. Benetan, egoeraren konponbidea ez da batere erraza eta, zer esanik ez, belaunaldi horretako gazte guztiak ez daude galduta eta ez dira *ni-niak*. Batzuetan, ikasketak luzatu beste erremediorik ez dago; edo eskas ordaindutako beka nahiz lan-praktikei heldu; edo zabor-kontratu eta amaierarik gabeko lansaioei eutsi; edo gurasoen etxean bizitzen segitu, alokairuan bizitzeko eskaintza duinik ez dagoelako. Horiek horrela, pertsonak adorea galdu eta etsita daude badaezpadako etorkizunaren aurrean. Badirudi atzera doazela, aurrera barik. Egoerak eta beldurrak geldiarazten dituzte.

Hala ere, badago zer egin. Horixe bera adierazi nahi du idazle gazteak. Gazteok haserretu egin behar dugu, hausnartu eta zalantzan jarri ondo ez dabilen guztia. Erresumindu egin behar dugu gizarteko bidegabekeriaren aurrean, boterearen gehiegikerien aurrean eta sasidekrazien aurrean. Erantzukizunez jokatu, nork bere etorkizunaren gaineko agintea hartu behar du eta negarrez egoteari utzi behar diogu. Izan ere, inork ez digu ezer oparituko.

*gogogabezia, apatia

Susana Rodriguez
Aikor aldizkaria
(Moldatua)

Idea nagusiak eta bigarren mailakoak (eskema moldean, zenbaki gabe)

- Artikulugileak gustura irakurri du M. Haaf alemanaren *Belaunaldi...* obra
 - Haafek, 80ko *ni-ni belaunaldi* galdukoa izanik, kritika eta aitortza iraganaz
 - Belaunaldikoen portaeraren sustraia: familiek lar babestuta hazi izana
- Horren haritik, gaurko gizarte zailean, gazte askok nahiago ardura gabe jokatu
 - Ez da gazte guztien jokabidea, denak ez dira *ni-niak*
 - Egoera, kontra: ikasketak luzatu, zabor kontratuak, gurasoen etxean...
 - Zailtasunen aurrean, etsipena eta beldurra
- Gazteek, Haafek adierazi bezala, jarrera negartia aldatu behar dute
 - Erresumindu bidegabekeri, gehiegikeri eta sasidemokrazien aurrean
 - Etorkizunari erantzukizunez eutsi, opari zain egon gabe

Laburpena

Meredith Haaf idazle alemanak *Belaunaldi batez eta beraren arazo funsgabeez* obran 80ko *ni-ni-belaunaldi* galduaren kritika eta bere aitortza ere egin du: familiek lar babestuta hazi izana dago portaera horren sustraian. Eta horren haritik, gaur egun ere, gazte askok –denak ez dira *ni-niak*– nahiago dute sortasun betean bizi, egoera zailera egokiturik: ikasketak luzatuta, zabor kontratuekin, gurasoen etxean bizitzen... Adoregabetuta.

Baina, Haafek adierazi bezala, gazteek jarrera negarti hori gainditu beharra dute eta ekimenari heldu, etorkizuna irabazteko: erresumindu eta aurre egin bidegabekeriei, gehiegikeriei eta sasidemokraziei.